

EUGENIO AVIRANETA **(Madril, 1792-1872)**

Eugenio Aviraneta Ibargoiien Madrilen jaio zen eta haurtzaroa Irunen igaro zuen. Aviraneta **ideia liberalekin** bat zegoenez, Espainiako Independentzia Gerran borrokan aritu zen, hasieran Merino apaizarekin, eta ondoren, Empecinado izeneko gizon batekin.. Haren ideiak tarteko, gerraren amaieran erbesteratu egin behar izan zuten.

Hirurteko Liberalean itzuli zen Eugenio Aviraneta Espainiara, eta **bazterrak nahasten** aritu zen. Lehen Karlistaldiak iraun zuen bitartean, zurrumurruak eta dokumentazio faltsua zabaltzen aritu zen, karlisten artean mesfidantza eta etsipena eragiteko. Karlisten banaketak **Bergarako Hitzarmena** eragin zuen, eta Aviranetak berak hitzarmen horretan zerikusi handia izan zuela aldarrikatu zuen.

Hurrengo urteetan, Aviranetak, unean uneko egoera politikoaren arabera, ohore eta izendapenak edota deportazioak edo kartzela-zigorak jaso izan zituen. 1872ko otsailean hil zen Madrilen.